# Landa gunetan udalez kanpoko ur hornidura sistementzako dirulaguntzak emateko oinarriak

**1.- Helburua.**

2023ko abenduaren 21eanan, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako 8. Lerro estrategikoa Landa guneen sustapena izenekoa da.
Lerro honen B ekintza Udalaz Kanpoko ur hornidura sistemak landa gunetan dirulaguntzak dira. Helburua honako hau da: Herriko landa gunetan, ur hornidura publikoa iristen ez den eremuetan eta udalaren titularitateko ez diren ur hornidura sistemak konpontzeko edo mantentzeko lanak finantzatzeko dirulaguntzak -banakako ebaluazio erregimenean- emateko prozedura erregulatzea.

Dirulaguntzen helburu diren konpontze edo mantentze lanak hornidura kolektiboko sistemetakoak (sare orokorra) izango dira. Salbuespen gisa, sistema indibidualetan egindako konpontze edo mantentze lanak diruz lagundu ahal izango dira, betiere, udal zerbitzu teknikoek aurrez egindako txostenean egiaztatzen baldin bada sare orokorrerako loturarik ezin izan dela egin arrazoi teknikoengatik edo aurrekontu handia eskatzen zuelako.

Dirulaguntzak emateko ondorengo arauak jarraituko dira:

- Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.
- Ezingo dira aipatu aurrekari bezala.
- Ezingo da eskatu dirulaguntza handitzea edo berraztertzea.

**2.- Organo eskuduna.**

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

**3.- Araudi aplikagarria.**

Dirulaguntza hauek eta pertsona onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauek arautuko dituzte.

Deialdi bakoitza ondorengo arauek arautzen dute:
• Deialdiaren oinarriak
• Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorrak. (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a)
• 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
• Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletin Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.

**4.- Onuradunak.**

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarteek, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa gunean baldin badute. Dirulaguntza horiek eskatu ahal izango dituzte ere bi elkarte edo gehiagok osatutako elkarteek, betiere, elkarte horiek Eskoriatzako Udaleko elizateetako edota landa auzoetako biztanleek bakarrik osatutakoak baldin badira.

Norbanakoek, norbanako bezala, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu.

Elkarteak baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.- Irabazi asmorik ez izatea eta beraien helburuen artean hobekuntzak sustatzea, elkarbizitza eta elizatearen garapen soziokulturala egotea.
2.- Eusko Jaurlaritzako erroldan legez inskribatuta egotea.
3.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

**5.- Dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduerak.**

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzten gastuak landa gunetako udalez kanpoko ur hornidura sare kolektiboetan edo, salbuespen gisa eta 1. artikuluan ezarritako moduan aurrez justifikatuta, sare indibidualetan egin beharreko jarduerak dira, betiere, honako helburuak dituztenak:

- Ur-bilketen, ura eramateko bideen, depositSuen, arazketa eta desinfekzio ekipoen edo ur horniduraren kalitatea edo ziurtasuna hobetzeko beste elementu batzuen konponketa edo mantentze-lanak. Halaber, iturburu aldaketa bat egin behar bada eta horrek suposatzen dituen lanak ere kontuan hartuko dira.

- Baserriak, ur hornidurari lotunerik ez duten etxebizitzak eta eraiki berri diren etxebizitzak ur hornidura kolektiboko sareari lotzeko lotune berriak egiteko obrak. Baserrietako abeltzaintza ustiaketa instalazioetarako lotuneen kasuan, lotunea baserriak duenetik ezin dela egin justifikatu beharko da.

Gastuak deialdiaren erabakian ezarritako epean egindako jarduerenak izan beharko dira.

**6.- Dirulaguntzarik jaso ezingo duten jarduerak.**

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso ondorengoei buruzko gastuek:

1. Mantentze-lanetatik edo konponketetatik haratagoko obrak eta inbertsio handiak egitea eskatzen dituztenak. Zalantza egonez gero, Lurralde eta Garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak erabakiko du obraren izaera eta neurria.

2. Auzotarren baserrietara lotuta ez dauden eta Aldundiko Nekazaritza Departamentuak ustiaketetarako eskatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten ortu txikietarako, abeltzaintzako txaboletarako eta abarretarako lotuneak.

**7.- Erregimena.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean emango dira, ur hornidura publikoa iristen ez den eta horren kanalizazioa oso garestia izango zen landa gunetan ur hornidura sistemaren kalitatea bermatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Dirulaguntzetarako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta horrek hartutako erabakia Dirulaguntzen Sistema Nazionalean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**8.- Finantziazioa.**

Aurrekontu-esleipena hogei mila (20.000,00) €-koa izango da, eta honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0100.481.161.00.01

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango.

**9.- Dirulaguntzen zenbatekoa.**

Dirulaguntza bakoitzerako kopurua diruz lagundu daitekeen gastuaren % 75a izango da.

**10.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua. Indarraldia.**

*"Eskaerak **sinatuta, eredu normalizatuaren arabera** eta dagokien dokumentazioarekin batera, modu telematikoan, aurkeztu beharko dira.*
*Modu telematikoan eguneko 24 ordutan, asteko 7 egunetan, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren (www.eskoriatza.eus ) "Tramiteak" atalean. (https://labur.eus/R9fsY)*

Eskaerak aurkezteko epea dirulaguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da.

Eskaerak dirulaguntza indarrean dagoen edozein momentutan egin ahal izango dira deialdiaren urteko urriaren 31a baino lehen.

Eskaerak aurrekontu kontsignazioa dagoen bitartean erabakiko dira.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian jasotako baldintzak, horiek zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horretarako, gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina izango du. Era berean, ohartaraziko zaio eskatutakoa beteko ez balu eskaerari uko egintzat joko dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 71. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den erabakia hartu ondoren.

Eskaera egiteak Eskoriatzako Udalari egoki izan daitezkeen jarduerak egiteko baimena ematea dakar. Jarduera horiek eskatzaileak emandako informazioa, eskatutako baldintzak betetzen diren eta dirulaguntza emanda erakunde onuradunak hartutako betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko egingo dira.

**11.- Agiriak.**

Eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Eskaera orrian bertan aitortu beharko dira:
    - Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
    - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
    - Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu bada, horri buruzko informazio espezifikoa aurkeztu beharko da.
    - Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
    - Ez duela sexu- diskriminazioagatik administrazio- zigorrik, ez zigor penalik.
    - Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera- berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
    - Ez duela 38/2003Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.
2. Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea eskaera orrian horren aurka agertzen bada, zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
3. Txosten laburra egindako jarduera azaltzeko.
4. Obraren faktura obra egin dela ziurtatzeko.

**12.- Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.**

Eskaerak Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuetako administrazio unitateak tramitatuko ditu.

**13.- Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.**

Lortu nahi den helburua konponketa edo mantentze lanak finantzatzeko dirulaguntza ematea denez, eta lan horiek ezin aurreikusizkoak izanik, norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, denborarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri. Hau da, eskaerak aurkeztu ahala erabakitzen joango dira horretarako dagoen aurrekontu kontsignazioa agortu arte.

**14.- Prozedura eta erabakia.**

Eskaerak sarrera hurrenkeran tramitatu eta erabakiko dira horretarako aurrekontu kreditua dagoen artean.

Eskaera aurkeztuta, Obra eta Zerbitzuetako arloko teknikariak aztertuko du, eta dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko.

Epe hori igarota eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Azkenik, eta diruz lagungarri den jarduera bati dagokion gastua dela esateko teknikariak egindako txostena jaso ondoren, Lurraldearen eta garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari dagokion erabakia har dezan.

Erabakia gehienez ere hiru hilabeteko epean hartuko da Udal Erregistroan eskaerari emandako sarrera egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.

**15.- Dirulaguntza ordaintzeko modua.**

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, hilabeteko epean Alkateak dirulaguntza ematea onartzen duenetik kontatzen hasita.

**16.- Dirulaguntzak pilatzea.**

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, dirulaguntzaren kopurua ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

**17.- Dirulaguntzak argitaratzea.**

Dirulaguntza, banaka hartuta, 3.000 eurotik gorakoa baldin bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onuradunaren izena eta emandako dirulaguntza.

Ez da dirulaguntzen daturik argitaratuko, dirulaguntzaren helburuagatik datuak argitaratzea pertsona fisikoen errespetuaren eta ohorea babestearen, intimitate pertsonalaren eta familiakoaren aurkakoa izan daitekeenean.

**18.- Dirulaguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.**

Dirulaguntza berraztertzeko eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da dirulaguntza jaso izana horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

**19.- Oinarriak interpretatzea.**

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Lurraldearen eta Garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak erabakiko du.

**20.- Garapena eta exekuzioa.**

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko Ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.

## Bases para la concesión de subvenciones para sistemas no municipales de abastecimiento de agua en núcleos rurales.

**1. - Objeto.**

Con fecha 21 de diciembre de 2023, se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Ayuntamiento de Eskoriatza. En dicho plan, en la línea estratégica número 8 es la promoción de la zona rural. La acción B de esta línea es para sistemas no municipales de abastecimiento de agua en núcleos rurales. Es objeto de las presentes bases la regulación del procedimiento para la concesión, en régimen de evaluación individualizada, de subvenciones destinadas a la financiación de obras de reparación o mantenimiento de los sistemas de abastecimiento de agua de titularidad no municipal existentes en los núcleos rurales del municipio.

Las obras de reparación o mantenimiento objeto de subvención deberán de referirse a sistemas de abastecimiento colectivos (red general) ejecutadas. Con carácter excepcional podrán subvencionarse aquellas obras de reparación o mantenimiento que se ejecuten en sistemas individuales siempre que quede acreditado con previo informe de los servicios técnicos municipales que la conexión a la red general no ha sido posible por razones técnicas o de elevado coste presupuestario.

El otorgamiento de las subvenciones se atendrá a estas normas:

- Tendrán carácter voluntario y eventual.
- No serán invocables como precedente.
- No será exigible aumento o revisión de la subvención.

**2.- Órgano competente.**

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Alcalde (de conformidad con lo dispuesto en el art. 6 de la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones por el Ayuntamientode Eskoriatza.

**3. Normativa aplicable.**

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación:

- La Ordenanza General Reguladora del Régimen de concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Eskoriatza
- Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado 18-11-2003) y el Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21

**4. Beneficiarios.**

Podrán solicitar las ayudas económicas contempladas en las presentes bases las asociaciones integradas exclusivamente por vecinos de las anteiglesias y/o de los barrios rurales que, no teniendo ánimo de lucro, tengan su sede y marco de actuación en el área rural del municipio de Eskoriatza. También podrán solicitar dichas ayudas las asociaciones configuradas por la agrupación de dos o más asociaciones que integren exclusivamente a vecinos de las anteiglesias o barrios rurales del municipio de Eskoriatza.

Las personas individualmente consideradas no podrán solicitar subvención

Las asociaciones deberán de:

1.- Carecer de ánimo de lucro y que entre sus fines se encuentre promover mejoras, la convivencia y el desarrollo socio-cultural de la Anteiglesia
2.- Estar legalmente inscritas en el Registro del Gobierno Vasco
3.- Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la seguridad social.

**5.- Gastos susceptibles de subvención.**

Los gastos susceptibles de subvención serán aquellos relativos a actuaciones en el área rural que recaigan sobre redes de abastecimiento de agua de titularidad no municipal, que sean colectivas o, excepcionalmente y previa justificación en los términos fijados en el art. 1º, individuales y tengan por objeto:

- La reparación o mantenimiento de captaciones, conducciones, depósitos, equipos de potabilización y desinfección u otros elementos que contribuyan a la mejora en la calidad o fiabilidad en el suministro. También se consideran que pueden recibir dicha subvención, cuando se necesiten nuevas captaciones al depósito y la conexión nueva desde captación a depósito.

- Obras de nuevo enganche a la red colectiva de abastecimiento de caseríos o viviendas sin enganche o viviendas de nueva construcción. En el caso de enganches para instalaciones de explotaciones ganaderas pertenecientes a los caseríos, tendrá que justificarse que el enganche no puede realizarse desde el ya existente en el caserío.

Los gastos deberán de estar referidos a actuaciones realizadas durante el periodo que quede fijado en el acuerdo de convocatoria.

**6.- Gastos NO susceptibles de subvención.**

No serán objeto de subvención los gastos relativos a:

1. Las obras u actuaciones que excedan de la propia conservación o reparación y que impliquen la acometida de importantes inversiones. En caso de duda será la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo económico sostenible la que determine el carácter y la dimensión de la obra, esto es, si se trata de una mera reparación o mantenimiento o, al contrario, se trata de una inversión.

2. Los enganches a pequeñas huertas, chabolas ganaderas, etc. no ligadas a caseríos de los vecinos y que no cumplan las condiciones mínimas de explotación que exige el Departamento de Agricultura de la Diputación.

**7.- Régimen.**

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas que pretende garantizar la calidad del sistema de abastecimiento de agua en aquellos núcleos rurales en los que la red pública de suministro de agua no llega y su canalización sería extremadamente onerosa.

La convocatoria de las ayudas corresponderá al alcalde-Presidente mediante Resolución publicada en la BDNS y en el Boletín Oficial del Gipuzkoa.

**8.- Financiación.**

La asignación presupuestaria será de un importe global de diez mil euros (20.000,00 euros) cuya financiación será con cargo a la aplicación presupuestaria 0100.481.161.00.01

El volumen total de las ayudas a conceder no excederá de la consignación señalada.

**9.- Cuantía de las ayudas.**

La cuantía de cada subvención será del 75% del gasto susceptible de subvención.

**10. Plazo y lugar de presentación de solicitudes. Vigencia.**

"Las solicitudes, junto con la documentación correspondiente, deberán presentarse **firmadas y según modelo normalizado**.

Las personas jurídicas, de conformidad con el artículo 14 de la Ley 39/2015, tienen la obligación de relacionarse con las Administraciones Públicas haciendo uso de medios electrónicos, por lo que las solicitudes para esta subvención, deberán presentarse obligatoriamente por vía telemática.
De forma telemática las 24 horas del día, los 7 días de la semana, en la sede electrónica del Ayuntamiento de Eskoriatza, www.eskoriatza.eus, en el apartado "Trámites". (https://labur.eus/5tgsi)

El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre del año de la convocatoria.

Las solicitudes serán resueltas en tanto se disponga de consignación presupuestaria

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá al solicitante que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La solicitud implicará la autorización al Ayuntamiento de Eskoriatza para que realice las actuaciones de comprobación que resulten procedentes, a los efectos de verificar la información facilitada por las personas solicitantes, la concurrencia de los requisitos exigidos y el cumplimiento de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas de la concesión.

**11.- Documentación.**

A las solicitudes deberá acompañarse la siguiente documentación:

1. En el impreso de la solicitud, declaración expresa de los siguientes ternos:

- No hallarse incurso en ningún proceso de devolución económica ante la administración.
- No haber solicitado otra subvención para la misma actividad. En caso de haber solicitado/recibido otra subvención, será necesario presentar el justificante del mismo.
- No haber incurrido en discriminación sexual ni haber recibido sanción administrativa o penal por ese hecho.
- Que sus fines y objetivos no son contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres.
- Que no está incurso en ninguna de las causas de prohibición de los articlos 13.2y 13.3 de la Ley 38/2003.

2. El Ayuntamiento de Eskoriatza solicitará directamente a otras administraciones los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. Si la persona solicitante en la propia solicitud se opusiera a ello, deberá presentar la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
3. Breve memoria explicativa de la actuación realizada.
4. Factura acreditativa de la ejecución de la obra.

**12. Unidad administrativa encargada de la tramitación de las solicitudes.**

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Obras y Servicios..

**13.- Criterios de evaluación de las solicitudes.**

Siendo el objetivo pretendido el ayudar económicamente en la financiación de obras de reparación o mantenimiento y siendo ésta imprevisibles, no existe posibilidad de efectuar una valoración comparativa entre las solicitudes que se presenten en el marco de un procedimiento de concurrencia competitiva, no pudiendo establecerse otro elemento de relación entre sí que el temporal. Esto es, las solicitudes se irán resolviendo a medida que se presenten y hasta que se agote la consignación presupuestaria destinada al efecto.

**14. Procedimiento y Acuerdo.**

Las solicitudes serán tramitadas y resueltas según el orden de entrada de las mismas y en tanto se disponga de crédito presupuestario para ello.

Presentada la solicitud, ésta será estudiada por el técnico del área de Obras y Servicios y en el caso de que falte algún documento se concederá un plazo de 10 días para su subsanación.

Finalizado dicho plazo sin haberse presentado la documentación requerida, se entenderá que se desiste en la solicitud de subvención.

Finalmente, y tras recibir el informe del técnico de que se trata de un gasto correspondiente a una actividad subvencionable, la comisión informativa de Territorio y Desarrollo económico sostenible hará la propuesta de concesión de subvención al alcalde para que ésta adopte la resolución oportuna.

La resolución será emitida en el plazo máximo de tres meses contados a partir de la fecha de entrada de la solicitud en el Registro del Ayuntamiento.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.

**15. Forma de pago de la subvención.**

La subvención concedida será abonada en un único pago y dentro del plazo de un mes contado a partir de la aprobación por parte del alcalde de la concesión de la subvención.

**16. Concurrencia de las subvenciones.**

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin. Sin embargo, el importe de la subvención no podrá ser, por sí sola o junto con otras subvenciones, superior al costo de la actuación subvencionada.

**17.- Publicidad**

Si el importe de la subvención individualmente considerada excede de 3000 euros, se publicará en el B.O. de Gipuzkoa el/la beneficiario/a y la cuantía de la subvención concedida.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas.

**18. Anulación o revocación de la subvención.**

Será motivo de revisión y, en su caso, de anulación de la subvención concedida el haberla recibido sin cumplir las condiciones requeridas para ello.

**19.- Interpretación de las Bases.**

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación, aplicación y efectos de las presentes Bases, será resuelta por la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo económico sostenible.

**20.- Desarrollo y ejecución.**

Se faculta al alcalde-presidente para dictar cuantos acuerdos sean necesarios para la ejecución de estas Bases.

# DIRULAGUNTZA ESKAERA
Solicitud de subvención

| **IZEN-ABIZENAK /** Nombre y apellidos | **NAN /** DNI |
|---|---|
| | |

**Orri hau beste baten izenean betez gero, idatzi horren datuak ere ondorengo taulan:**

En caso de formalizar este escrito en nombre de una tercera persona o entidad, rellenar los siguientes datos

| **ZEINEN IZENEAN /** En nombre de quién | **NAN/IFK** DNI/CIF |
|---|---|
| | |

**Jakinarazpena bidaltzeko datuak /** Datos para envío de notificaciones**:**

| **HELBIDEA /** Dirección | | **HERRIA /** Población | **PK /** CP |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **TFNO. FINKOA /** Tfno. fijo | **TFNO. MUGIKORRA /** Tfno. móvil | **E-maila** | |
| | | | |

| **ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZAREN IZENA /** Nombre de la subvención solicitada |
|---|
| |

| **BANKUKO DATUAK /** Datos bancarios | | | |
|---|---|---|---|
| **KONTUAREN JABEA** Titular de la cuenta | | | |
| **BANKETXEA** Entidad bancaria | | **KONTU zb. (20 digitu)** Nº cuenta (20 dígitos) | |

| **DATUEN EGIAZTAPENA** / Verificación de datos | |
|---|---|
| 3.000 €-tik gorako dirulaguntzetan, Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko du deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla, eta horretarako, behar dituen datuak NISAEren bidez (Euskadiko administrazioen elkarreragintasunerako eta segurtasunerako nodoa) eskuratuko ditu.<br><br>Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu:<br><br>– Interesdunak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela.<br><br>Interesduna egiaztatze horren aurka ager daiteke, eta kasu horretan eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. | En las subvenciones de cuantía superior a 3.000 €, el Ayuntamiento de Eskoriatza verificará directamente el cumplimiento de las condiciones establecidas en la convocatoria, obteniendo los datos necesarios para ello a través de NISAE (nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi).<br><br>Concretamente, realizará las siguientes consultas:<br><br>– Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral.<br><br>La persona interesada podrá oponerse a dicha verificación, debiendo aportar en ese caso los certificados requeridos. |
| ☐ Aurka nago, eta beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.<br>No estoy de acuerdo, y en consecuencia, aporto la documentación requerida. | |

| **ZINPEKO AITORPENA** / Declaración jurada | |
|---|---|
| **Eskatzaileak (edo berak ordezkatzen duen erakundeak edo pertsonak):**<br>El/la solicitante (o en su caso, la persona o entidad a la que representa): | |
| • Egunean al ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak?<br>¿Se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Ba al du hasita edo tramitean dirua itzultzeko inolako prozedurarik Euskadiko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan, beraiengandik jasotako dirulaguntzen eremuan?<br>¿Se halla incurso en algún proceso de devolución económica ante la Administración General del País Vasco y sus organismos autónomos, en el ámbito de las subvenciones recibidas de ellos? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Beste inongo erakundetan eskatu al du dirulaguntzarik jarduera horretarako?<br>¿Ha solicitado a alguna otra entidad subvención para llevar a cabo las actividades mencionadas? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik, jaso al du administrazio-zigorrik edo zigor penalik?<br>¿Ha recibido alguna sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Bere xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak al dira?<br>Sus fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, ¿son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |
| • Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan dirulaguntzak jasotzeko aipatutako debekurik ba al dauka?<br>¿Incurre en alguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre? | ☐ **Bai** / Sí<br>☐ **Ez** / No |

| DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA<br>Información básica sobre el tratamiento de datos | | |
|---|---|---|
| **ESKORIATZAKO UDALA**<br>Kontuan hartuta zer xedatzen duten Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, jakinarazten dizugu formulario honetan jasotako datuen tratamendua konfidentziala izango dela eta ESKORIATZAKO UDALAren erantzukizunpean egingo dela, helbidea: Fernando Eskoriatza plaza 1, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa). | **Arduraduna**<br>Responsable | **ESKORIATZAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**<br>De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; le informamos que los datos aportados en este formulario, serán susceptibles de tratamiento estrictamente confidencial bajo la responsabilidad de ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa). |
| Laguntza kudeatzea eta baldintzak betetzen diren baloratzea.<br>Laguntza beste erakunde batek ematen badu, dokumentuak prestatzen eta bidaltzen laguntzea. | **Xedea**<br>Finalidad | Gestionar la ayuda y valorar el cumplimiento de los requisitos.<br>En caso de que sea otra entidad la que otorgue la ayuda, asistir con la elaboración de los documentos y envío de los mismos. |
| Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe. | **Legitimazioa**<br>Legitimación | La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo. |
| Interesdunak inprimaki honetan bertan emandakoak. | **Jatorria**<br>Procedencia | Facilitado por la propia persona interesada en la presente instancia. |
| Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie.<br>Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko. | **Hartzaileak**<br>Entidades destinatarias | Los datos se comunicarán a las Administraciones Públicas con Competencias.<br>Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa. |
| Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea eta aurkaratzea, eta datuak eramatea, bai eta informazio gehigarrian azaldu diren beste eskubide batzuk ere.<br>Eskubide horiek baliatu ditzakezu idatzi bat bidaliz ohiko postaz goian adierazitako Udalaren helbidera, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, edo, telematikoki, esteka honen bidez:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&idioma=eu-ES&TipoExpediente=ARCO&Doc=5 | **Eskubideak**<br>Derechos | Acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad, así como otros derechos explicados en la Información Adicional.<br>Puede ejercerlos remitiendo un escrito por correo postal a la dirección arriba indicada y acompañándolo de fotocopia de documento de identidad acreditativo, o telemáticamente a través del siguiente enlace:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&idioma=es-ES&TipoExpediente=ARCO&Doc=5 |
| Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure pribatutasun-politikan kontsultatu dezakezu.<br>http://eskoriatza.eus/udala/pribatutasun-politika/ | **Informazio gehigarria**<br>Información adicional | Puede consultar la información adicional sobre Protección de Datos en nuestra Política de Privacidad.<br>http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/ |

Eskoriatza, ……..ko ………………….….aren…………………….a

Sin.

**Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna. /** La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos, por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.